ASTEKARIA - 2011ko ekainaren 17an - XV. urtea - Usurbil, 453. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

Noaua!

Finala galdu arren, fin aritu dira
Endika Abril txapelketan

Asteburu honetan hasiko dira

San Joanak Kalezarren

bulegorako altzariak
eta hornidura

paper dendarako
artikuluak

Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892 · Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com · www.manpel.com

MANPEL

Albistea iruditan !

Azken gobernu taldea omenduz agurtu dute

Xabier Mikel Errekondo, Nerea Erauntzetamurgil, Imanol Azpiroz, Ainara Uribe, Juanjo Olaizola eta Karmele Bengoetxea, 2007az geroztik larunbatera arte udal ordezkari eta gobernu talde kide izan direnak agurtzeko omenaldi moduko ekitaldia antolatu zien Usurbilgo ezker abertzaleak Mikel Laboa plazan. Udalbatza berria osatzeko udaletxean burututako ekitaldiaren ostean izan zen.

Pasa diren lau urteoi dagokienez, udal kudeaketa "norabide zuzenetik atera gabe" egin dutela eta "lemazain ederrak izan ditugu" esan zieten ezker abertzaletik. Udaletik kanporatzeko mehatxua hor egon dela gogoraraztearekin batera, Udal honek herriari hitza eta erabakitzeko aukera eman izana txalotu zuen Usurbilgo ezker abertzaleak. “Gutxi ausartu dira pauso hori ematera”, adierazi zieten gobernu taldeko kide ohiei.

MIKEL LABOA PLAZAN EGIN ZITZAIEN OMENALDIA PASA DEN LARUNBATEAN.

Zinegotzi izan direnei bertsoak botaz, agurra dantzatuz eta opari bana emanez, taldeko argazkia atera eta luntx batekin amaitu zen ekitaldia.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI

Euskal presoak

Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

UNAI AGIRRE

Itxaropen aroa ireki da Zubietan

Udal hauteskundeekin batera, Zubietako Herri Batzar berria ere bozkatu genuen zubietarrok. Azken urteetan Donostiatik jasan dugun gutxiestea, zorionez bukatuko da. Altza eta Igeldorekin batera, Zubieta ere herri bezala aitortu du Juan Karlos Izagirrek, eta hasierako kontaktuen arabera, zubietarrokin beste jokamolde bat aurrera eramango du. Bi udalerritan banatuta egonda, Usurbildik laguntza izan dugun bezala (orain ere Mertxe Aizpurua horretan jarraituko duen dudarik ez dut), Donostiatik traba besterik ez dugu ezagutu. Ezadostasunak, hamaika. Zabor tasa Donostiak zigor bezala erabili zuen, hasiera batean erabakitzen genuen zabor kudeaketa errespetatuko zuela esan bai, gero traba guztiak jartzeko. Adostuta ziren bilerak, Donostiako alkatearekin ezin egin. Azpiegiturak eta Zubietaren garapena, Donostiako udalak erabaki zituen haien interesen arabera.

Zubietarentzat, itxaropen aroa ireki da. Alkate berriarekin, eta aldeko baldintzekin, Zubietan behar diren azpiegiturak egiteko garaia da, herriari begira, eta beste batzuk gelditzen saiatzeko. Baina argi utzi beharra dago; ez dago ezer irabazita, aldeko baldintzak izanda, lanean inoiz baino indartsuago aritzeko garaia dugu.

Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Imanol Ubeda - **Unai Agirre** - Idoia Torregarai

Egunkariako hainbat artxibo Berria Fundazioaren esku pasa dira

Udalak izan dituen Euskaldunon Egunkariako hainbat artxibo aurrerantzean Berria Fundazioaren esku egongo dira, ekainaren 10ean bi aldeek sinatu zuten hitzarmenari esker. Euskara, hezkuntza eta kultur arloko beste hiru akordio ere sinatu ziren udalbatza aretoan.

Joan Mari Larrartek Berria Fundazioaren izenean eta Usurbilgo Udalaren izenean, Xabier Mikel Errekondok 2004az geroztik Usurbilgo Udalaren esku zeuden Euskaldunon Egunkariako hainbat artxibo Berria Fundazioari itzultzeko hitzarmena sinatu zuten ostiral goizean, udalbatza aretoan. Larrartek, "altxor bat errekuperatzen da" zioen ekitaldian, Euskaldunon Egunkaria itxi ostean, ondarearen zati bat saldu behar izan baitzuten. Alde horretatik, beste hainbat udal bezala, Usurbilgoa ere eskertu nahi izan zuen, edukiok zaintzeko urteotan egin duen ahaleginagatik. Errekondok normaltasunerako bidean, hitzarmen hau sinatzea beste urrats bat dela adierazi zuen. "Gusto handiz itzultzen diogu, benetan eurena den altxorra", adierazi du.

Ikastolako eraikin berria

Beste hiru hitzarmen ere sinatu ziren ostiral goizean. Lehena, Udarregi ikastolarekin, eraikin berriaren finantzaketan eta lur esleipenean lorturiko adostasunaren adierazgarri. Hitzarmena Xabier Mikel Errekondok eta Udarregi ikastolako zuzendari Mariaje Imazek sinatu zuten. Gogoan izan, 2013-14 ikasturterako aurreikusia dagoela, Agerialde ondoan eraikin berria funtzionamenduan izatea. Hartara, eremu horrek, Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zikloak bilduko ditu. DBHko ziklora bideratuko da bestalde, Udarregi ikastolako eraikin gorria. Pozik agertu zen Imaz sinatze ekitaldian, gogoraraziz, “familiek sorturiko ikastola dela eta hori baino publikotasun handiagorik ez dagoela”. Hezkuntza Mahaian buruturiko lanketa goraipatu eta eskerrak eman nahi izan zizkion Udalari eta herritarrei.

AURREKO ASTEAN SINATU ZEN HITZARMENA, USURBILGO UDALETXEAN.

Mapa toponimikoa

Udalerriko mapa toponimikoa sareratzeko hitzarmena ere sinatu zuen Usurbilgo Udalak, Iametza enpresarekin. Eta azkenik, kaleko euskararen erabilera neurtzeko azterketa berri bat egiteko akordiora heldu dira Udala eta Soziolinguistika Klusterra. Udazkenean burutuko da Usurbilen egingo den euskararen erabileraren inguruko hirugarren neurraldia. Aurrekoa, 2006an burutu zen.

Bizi arteko espetxe zigorra zertan datzan azaltzeko,

hitzaldia antolatu dute iganderako

Hamarkadotan legedian txertatutako aldaketekin, euskal preso politikoei bizi arteko espetxe zigorra aplikatzen dietela salatzen dute, "Egin dezagun bidea" bilgunetik. Ohartarazten dutenez, "iraupen honetako zigorrek ondorio fisiko eta psikologiko latzak eragiten dituzte eta giza eskubideen ikuspegitik onartezinak dira". Gai honi buruzko nondik norakoak sakonago jorratuko dira, igandean Sutegin antolatu duten hitzaldian. Testuinguru honetan, joan den ostiralean elkartasun afaria burutu zen Askatasuna plazan.

BERE ANAIAK BIZI DUEN EGOERAREN BERRI EMAN DIGU XABIER ARANBURUK.

Bizi osorako espetxe zigorraren jatorria ulertzeko azken hamarkadotan indarrean egon den legedia aintzakotzat hartu behar da. Lehen erreferentzia, 1973an espainiar estatuak onarturiko Zigor Kodean aurki daiteke. Teorian, kondenatutako pertsona batek, "jarraian eta gehienez 30 urte igaro zitzakeen espetxeraturik". Eta zigor urte kopurua 25 urteraino murriztu zezaketen, erredentzioen bidez. Zigorraren hiru laurdenak beteta presoek kalean izateko eskubidea zuten.

Hori guztia aipatu moduan, teorikoki. Praktikan, onartutako eskubide hauek euskal preso politikoen kasuan, urratuak izan baitira. "Erredentzioak lortzeko, beste presoek baino zailtasun handiagoak zituzten, kartzelak jarritako trabak tarteko, behin eta berriro zigortuz, erredentzioak eskuratzeko aukerarik izan gabe", azaldu dute "Egin dezagun bidean" bilgunetik. Honez gain, zigorraren hiru laurdenak beteta ere, kalean egotea ukatu diete euskal preso politikoei. Lege aldaketak tarteko, gogortzen joan da egoera.

Eta hor dago kontraesana, legediak ez du bizi arteko zigorrik kontenplatzen, baina errealitatean, urteotan onartu diren lege aldaketek, halako zigorrak onartzea eta ahalbidetzea ekarri dute.

Espainiar estatuaz gain, frantziarrak ere hainbat lege onartu ditu, euskal preso politikoen espetxealdia luzatzeko, "Perben I eta II legeak eta Sarkozy legea horren adibide". Gogorarazten dutenez bi ondorio nagusi ekarri ditu horrek: ETAko kide izatea leporatu dietenei 10 urtetik hogeira igo diete espetxe zigorra, eta "20-30 urte arteko espetxe zigorrak ETAko zuzendari izateaz akusatzen dituztenei".

Hitzaldia Sutegin

Gai honi buruzko argibide gehiago, igande honetarako, ekainaren 19rako, 18:00etan Sutegin antolatu duten hitzaldian eskainiko dituzte, bi lekukotzen bidez. Batetik, Ainhoa Baglietto abokatuak bizi arteko espetxe zigorrari eta aparteko legeei buruzko nondik norakoak azalduko ditu, eta berarekin batera, preso ohi baten testigantza ezagutu ahal izango da.

Kalean behar luketen arren, espetxeratuak…

-Zigorraren hiru laurdenak edo bi herenak beteta izan arren: 174 euskal herritarrek preso jarraitzen dute. Horietatik 38 presok zigorra osorik betea dute.

-197/2006 doktrina, "Parot doktrina" aplikatuta: 50 preso daude.

-20 urtetik gora daramatzate 64 presok.

-Gaixotasun larriak dituzten presoei, askatasun eskubidea sistematikoki urratzen zaie.

Xomorroren kasua

Legedi bidez eragindako eskubide urraketen erakusgarri dira, herriko bi preso. Xabier Aranburu *Xomorro* aginagarrak eta Ramon Uribe kalezartarrak etxean beharko lukete, baina espetxean jarraitzen dute. Abuztu honetan Aranburuk hogei urte beteko ditu kartzelan eta Uribek hamazazpi urte daramatza.

"Anaiari 1973ko zigor kodea aplikatu zioten. Zigorraren hiru laurdenak beteak ditu baina kartzelan jarraitzen du. Erredentzioa aplikatuko diete. 24-25 urte beteta kaleratu beharko lukete, baina "Parot doktrinak" indarrean jarraitzen badu, orduan aplikatuko diete. Ondorioz, 30 urte bete arte espetxean egon beharko luke", adierazi du anaia Herrerako espetxean duen Ander Aranburuk. Horixe da egun, *Xomorrok* bizi duen egoera. Eskubide urraketok senitartekoek ere pairatzen dituzte. "Okertu egin da egoera. Lehen bisita eta bis a bis guztiak goiz bakar batean biltzeko aukera izaten zen. Orain egun desberdinetan jartzen dizkigute. Lehen ez baina orain bis a bisetan katxeatzen gaituzte", gaineratu du Aranburuk. Lekukotza bat, hainbat eta hainbaten artean.

Mertxe Aizpurua, Usurbilgo alkate berria

2011-2015 legegintzaldirako, Usurbilek alkate berria du jada; Mertxe Aizpurua (Bildu). Larunbatean hartu zuen kargua, normaltasun osoz joan zen udalbatza osatu ostean. Herritar, udal ordezkari ohi, zinegotzi berri eta alderdietako kideez bete zen udalbatza aretoa.

ZERO ZABOR TALDEAK HAIZE ERROTAK BANATU ZITUEN UDALBATZAREN OSAKETAN.

Lehenbizi, udalbatza osatzeko aretoko mahai buru lanak egiteko bi udal ordezkari izendatu ziren, ohi denez, helduena eta gazteena, Jone Urdanpilleta (Bildu) eta Ricardo Crespo (PSE-EE) hurrenez hurren. Jarraian, herritarrek hala bozkatuta hautatuak izan diren udal ordezkariak, euren izen abizenak entzun ahala, banan bana eserlekuak hartzen joan ziren.

Udalbatza osatuta, alkate berria hautatu behar zen gero. Hamahiru zinegotziek alkatetzarako hautagaia proposatzeko aukera zuten. Bilduko zazpi ordezkariek Mertxe Aizpuruaren hautagaitza babestu zuten. Aralar, Hamaikabat eta EAJ-PNVko bost udal ordezkariek boto zuria eman zuten. PSE-EE-ko ordezkari Ricardo Crespok ordea, bere hautagaitza mantendu zuen. Emaitza argia izan zen beraz; zazpi bozkekin eta gehiengo osoz, Mertxe Aizpurua da Usurbilgo alkate berria.

Parte hartzea, oinarri

Udalbatza aretora bertaratu zirenek txalo zaparrada eta irrintzi artean eman zioten ongi etorria alkate eta gobernu talde berriari. Herritarrak eskertzearekin batera, kargua ilusioz eta arduraz hartu duela zioen herriko lehen emakume alkateak, Xabier Mikel Errekondoren lekukoa jaso berritan. “Prest gaude ardurari behar bezala erantzuteko” eta, “aldaketa politiko eta soziala eta instituzionala hitzetatik ekintzetara eramateko”, adierazi zuen. Egoera demokratikoa lortzea da euren lehen erronketako bat, bestelako herri eredua eraikitzearekin batera. Usurbil hobea eta bertatik Euskal Herri hobea egitera doazela iragarri zuen, horretarako ordea, guztientzat eta guztiekin lan egitea beharrezkotzat jo zuen. Parte hartze zabala bultzatuko dute, “herrigintzan eta auzolanean aritzeko prest zaudeten guztiokin. Guztiontzat zabalik izango dira udal honetako ateak”.

Beretzat emozio unea zela aitortu zuen alkate berriak, bere bizipen asko Udalari lotutakoak direla adierazi baitzuen. Hainbat pertsonen jokamolde eta “herrigintza eredu ezin hobeak aurkitu ditudalako, nire aldetik, hauen arrastoari heldu-ko diot lau urteotan”. Amaitzeko, desio bat ere plazaratu zuen, etorkizunera begira: “sufrimendu bakarra, bizitzak berak dakarrena izan dadila”.

Elkarlanerako prest

Alkate berriak kargua hartu eta bere adierazpenak entzun ostean, gainerako udal taldeei eman zien ahotsa. Aizpurua zoriontzearekin batera, **Aralar**reko bozeramaile berriak Eustakio Arrojeriak iragarri zuenez, “gure jarrera irekia izan da eta irekia izango da”. Programa propioa duten neurrian, ekarpenak egingo dituztela adierazi zuen, nahiz Bildurekin elkarlanerako prest dauden. Gobernu taldeari zuzenduta zioenez, “gauza asko berdintsuak ditugula eta, horretan bidelagun izango gaituzue”.

Hamaikabateko bozeramaile Luismari Ormaetxea Bilduko ordezkariei zuzendu zitzaien, “kontuan hartuko ditugu gaur esandakoak” adierazteko. Gai batean baino gehiagotan adostasunera heltzeko aukera ikusten du berak, eta beste batzuetan, hitz egiteko prest agertu ziren.

EAJ-PNVko ordezkari berriak, Andoni Atxegak zorionak helarazi nahi izan zizkien herritarrei eta hautatuak izan diren udal ordezkariei. Datozen lau urteotarako desio bat ere agertu zuen, “hurrengo legealdia emankorra izan dadila”.

Azkenik, **PSE-EE** alderdiko ordezkari berriak, gobernu talde berria zoriondu nahi izan zuen, eta berak ere elkarlanerako jarrera erakutsi zuen, "usurbildarren alde, ados gauden puntuetan".

Agurrak eta esker hitzak, aurreko legealdiko azken osoko bilkuran

Ekainaren 8an burutu zen 2007-2011 legegintzaldiko azken osoko bilkura, ezohikoa. Eskertzeko eta agurtzeko baliatu zutena zenbait udal taldek. Hamahiru zinegotzitatik hiruk bakarrik jarraituko baitute zinegotzi gisa, abiatu berri den legegintzaldi honetan.

Ekainaren 8ko gai zerrendan puntu bakarra zegoen; joan den maiatzaren 17an burutu zen osoko bilkurako akta onartzea. Gehiengo osoz onartu zen. Jorratzeko beste gairik izan ez eta legegintzaldiko azken osoko bilkura zela ikusirik, Xabier Mikel Errekondok lau urteon balorazio labur bat egiteko hitza hartu zuen.

EKAINAREN 8AN EGIN ZEN 2007-2011 LEGEALDIKO AZKEN UDALBATZA PLENOA.

XABIER MIKEL ERREKONDO

Udal langileen borondatea eta profesionaltasuna goraipatu zituen azken plenoan

"Asko ikasi dugu"

Esperientzia aberasgarritzat jo zuen, pertsona zein talde gisa, legegintzaldi honetan bizi izan zutena. "Asko ikasi dugu", adierazi zuen, herriari ekarpen eta bultzada ematen saiatu direla eta asmatutakoak zein intentzio onez egin arren, huts egiteak ere hor egongo zirela adieraztearekin batera. Egindako ahaleginatik esker hitzak izan zituen taldekideentzat, baita Aralar, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeentzat ere, "bakoitzak bere ikuspegi eta ahaleginetik herria izan duelako nagusiki jomuga". Hamaikabat alderdikoei zuzenduta ordea, bere esanetan, "oker ibili dira hor. Jomuga herria izan beharrean, beste eginbeharretan nahastuta ibili dira". Esker hitzak izan zituen baita udal langileentzat ere, euren borondate eta profesionaltasuna goraipatu nahi izan zuen.

Amaya Goyaranen agurra

Agur mezua helarazi nahi izan du hamabi urtez sozialisten bozeramaile lanetan jardun duen Amaia Goyaranek. Hunkituta, eskerrak eman nahi izan zizkien herritarrei, hedabide eta udal langileei, bereziki "kargu publikoa eta pertsona bereizten jakin duzuenoi, pertsona gisa ezagutzera hurbildu zaretenoi".

EAJ-PNVko bozeramaileak ere azken osoko bilkura zuen. Iñaki Illarramendik udal ordezkari eta langileei eskerrak helarazi nahi izan zizkien.

Lohitzune Txarola (Bildu), Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari

Aldeko 23 bozkekin, Lohitzune Txarola (Bildu) da astelehenaz geroztik Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari berria. Rafaela Romeroren (PSE-EE) lekukoa hartu du. Hauteskundeetan, 22 eserleku lortu zituen Bilduk Batzar Nagusietan, 14 EAJ-PNV-k, 10 PSE-EEk, 4 PP alderdiak eta 1 Aralarrek.

Gizarte ekintzaile baten aldeko jardunaldiak

Foru Aldundiak badu programa bat martxan, "Gipuzkoan gizarte ekintzaile bat sustatzeko programa" izenekoa. Egitasmo honen harira, jardunaldi batzuk egin berri dira Usurbilgo Lanbide Eskolan.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Lanbide, Garapenerako Agentziak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Heziketako Eskoletako arduradunak eta irakasleak elkartu ziren ekainaren 3an, Usurbilgo Lanbide Eskolan. Programa aurkeztu ondoren, wok-kafe batean hartu zuten parte.

INSTITUZIO EZBERDINETAKO ORDEZKARIAK ELKARTU ZIREN ZUBIETAN.

Ikasturtean zehar euskara ikasten aritu direnek, diru-laguntzak eska ditzakete ekainaren 30era arte

Iazko irailaz geroztik euskara ikasten aritu direnek edota UEUko ikastaroren bat egin dutenek udal diru-laguntzak eskatzeko aukera zabalik dute, datozen bi asteotan. Onuradun izateko bi baldintza nagusi bete behar dira; Usurbilen erroldatua egotea eta jasotako prestakuntza ikastaroko klaseen %80ko asistentzia izatea.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak ekainaren 6an argitaratu zituen, euskara ikasi edota UEUko ikastaroren bat egiten dutenei zuzendutako udal diru-laguntzak eskatzeko deialdia. 2010eko irailetik 2011ko abuztuaren 31 arte egindako ikastaroak diruz lagunduko dira. Interesdunek zabalik dute jada eskaera egiteko epea; datorren, ekainaren 30era arte hain zuzen. Aipatu moduan, bi baldintza nagusi bete behar dira; Usurbilen erroldatua egotea eta gutxienez jasotako klaseen %80an parte hartu izana. Diru-laguntza eskariarekin batera, NAN fotokopia, matrikularen ordainagiria, %80ko asistentzia egiaztatzen duen euskaltegiko, UEUko edo autoikaskuntza zentroko agiria ere aurkeztu beharko dira.

Onuradunak

Diru-laguntza deialdian parte har dezaketen herritarrak honakoak dira:

a) Euskara ikasleak: matrikula kostuaren %80 itzuliko zaie.

b) 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoak: matrikulazio kostuaren %100 itzuliko zaie. Familia-liburuaren fotokopia aurkeztu behar da.

c) Langabetuak: matrikulazio kostuaren %100 itzuliko zaie, ikastaroak irauten duen denboraren erdia gutxienez langabezian egon direnei. Langabezia egoera Gizarte Segurantzako «Lan historiala» deritzan ziurtagirien bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri honek diru-laguntza eskatu den ikastaroaren epealdi guztia hartu behar du bere baitan.

d) UEUko ikasleak: matrikulazio kostuaren %60a jasoko dute. Egoitza gastuetarako ez da diru-laguntzarik emango.

ABUZTUAREN 31 ARTE EGINDAKO IKASTAROAK DIRUZ LAGUNDUKO DIRA.

Uztaritze gailendu zen Endika Abril errebote txapelketako finalean

Aurtengoan oso ondo aritu dira Zubietako errebote taldeko jokalariak. Endika Abril txapelketako finalera iristea lortu dute. Pasa den igandean jokatu zen finala Villabonako plazan. Uztaritze izan zen garailea finalean, baina hala eta guztiz ere, oso txukun aritu ziren zubietarrak. Argazkian, eserita eta ikurrinarekin ditugu Zubietakoak. Eta zutik, Uztaritzeko jokalariak, Kapito Harri taldeko kideak.

AURTENGO GARAILEAK TXAPELA BURUAN, KAPITO HARRI TALDEKOAK.

"13 eta 6 gailendu zaigu Uztaritzeko Kapito Harri taldea. Faboritoak ziren eta ez digute aukerarik eman. Bi orduko partidaren ondoren horrela bukatu da partida", hala aitortu digu Mikel Bengoetxea zubietarrak. Laster hartu zuten abantaila Uztaritzeko jokalariek, markagailuan 7-1 aurreratuz.

ZUBIETAKO TALDEA

"Joseba Aizpurua, Josu Aizpurua, Jon Huizi, Endika Garzia eta Imanol Aizpurua aritu ziren finalean"

Zubietarrak suspertu egin ziren eta markagailuan gerturatzea lortu zuten. Baina Uztaritzekoak hasierako martxa berreskuratu zuten eta 13 eta 6 irabazi zuten Endika Abril txapelketako finala.

Finalean, hauek izan ziren Zubieta ordezkatu zuten jokalariak: Joseba Aizpurua, Josu Aizpurua, Jon Huizi, Endika Garzia eta Imanol Aizpurua. Finalean ez ziren izan baina txapelketan Ander Iraolak eta Jon Argotek ere hartu dute parte Zubietako taldean.

Eneko Peletrat, finaleko jokalari onena

Uztaritzeko Eneko Peletrat aukeratu zuten finaleko jokalaririk onena.

Final handia baino lehen, jubenilen mailako partida jokatu zen eta Villabonako taldeak Oiartzungo taldeari irabazi zion.

Mikel Bengoetxeak adierazi digunez, giro ederrean jokatu ziren finalak eta ondoren "denok elkarrekin bazkalduz" bukatu zuten Endika Abrilen omenezko errebote txapelketa.

ZUBIETAKO ORDEZKARIAK, SARIAK ESKUETAN.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Itaya gazte talde berria osatu da eta ostiralean aurkeztuko da Artzabalen

Argitu da jada azken asteotan Kaxkoko hainbat kaleetan agertu diren pintaden eta zintzilikatutako igitaien esanahia eta baita nortzuk diren egileak ere. Hainbat zurrumurru eragin dituen ekimenaren zergatia agerian utzi nahi dute jada egileek. Zeresana emanda eta helburua bete dutela ikusita, gustura da gauzatu duten ekimenarekin Itaya, Usurbilgo gazte talde berria. Ostiral honetan burutuko dute jendaurreko aurkezpen saioa, Artzabalen 19:00etan hasita.

ITAYA GAZTE TALDEKOAK, DIAGNOSIA AURKEZTU ZUTEN EGUNEAN.

"Belar txarrak errotik" esaldia irakur zitekeen azken asteotan, Kaxkoko hainbat lekutan, oinezkoen bidean baita autoak pasatzen diren bideetako lurzoruan, eta hainbat igitai zintzilik zenbait lekutan. Herritar askoren artean jakinmina piztu dute, inork ez baitzekien zer esan nahi zuten, ezta nortzuk zeuden ekimen honen atzean.

ITAYA GAZTE TALDEA

"Usurbilgo herri dinamika osatu eta denen artean oztopoei aterabideak bilatzea ezinbestekoa ikusten dugu"

Egileek zeresana sortu nahi zuten, lortu dute eta orain, hurrengo pausoa eman dute; euren burua jendaurrean aurkeztea. Aipatu ekimen honen atzean, herrian sortu den bilgune berri bat dago; Itaya izeneko gazte taldea.

Iraultza txikiak, lokaletik eragiten hasita

Ohar bidez jakitera eman dutenez, eguneroko "errutina aspergarri horretatik ateratzeko" edota "Usurbilgo gainontzeko gazteekin elkarlanean" aritzeko aukera eskaini nahi dute. "Iraultza txikien asanbladak bilduz, Usurbilgo herri dinamika osatu eta denen artean oztopoei aterabideak bilatzea ezinbestekoa ikusten dugu", diote Itaya taldetik, euren ustez, gazteei hainbat arloetatik "inposatzen diguten irudia aldatzea beharrezkoa delako".

Herriko hainbat gazterekin buruturiko elkarrizketen ostean, joan den apirilean aurkeztu zuten arloz arloko arazoak detektatzen zituen gazteriaren alorreko diagnostikoa. Orain, diagnosi horretako gaiak landu nahi ditu sortu berri den Itaya taldeak. Egun indarrean dagoen sistemarekiko desados daude, "sistema honekin ez goaz inora" diote. Horregatik, iraultza moduko bat planteatzen dute, pausoz pauso jorratzen beharrekoa,"iraultza txikiak burutuz", eta lokaletik hasita.

Parte hartzeko deia

Taldetik berri eman dutenez, batetik arlokako lan taldeak sortuko dituzte Itaya barruan, kasuan kasuko, etxebizitza, lana edota aisialdi alorretako arazoen jatorria aztertu, eta "arazoei aurre egiteko epe motz, ertain eta luzera begirako alternatibak planteatuz". Gerora arlokako lan taldeak asanbladan bildu eta diagnosi osteko fase honekin, gazte programa bat osatzeko asmoa dute. Diotenez, "lan hau aurrera eramateko, gazte guztien indarra bildu nahi dugu! Usurbilen ere gazte izaera badugula erakutsi behar dugu".

Taldearen aurkezpena ostiral honetan egingo da Artzabalen

Aipatu moduan, ostiral honetan, ekainaren 17an burutuko du Itaya taldeak jendaurreko aurkezpena Artzabalen, 19:00etatik aurrera. Hitzordura bertaratzeko gonbita luzatzen dute, "gurekin lan egiteko grina piztu zaion edonori luzatzen diogu taldean sartzeko gonbidapena".

N!! San Joanak kalezar

gehigarri berezia

11

ekainak 24

Asteburu honetan, haurren eta oilasko biltzaileen txanda

Herritarren parte hartzea gaur egun maiz bultzatzen den honetan, duda izpirik gabe beste alor batzuetan bezala esku hartze hori jaietan islatzen da ondoen. Auzotarrik gabe, auzoan jai girorik egotea ez dela posible esaten da, eta hala da. Kalezarrera gerturatu eta parte hartzeko proposamen sorta prestatu du aurtengoan auzoko Jai Batzordeak. Deialdia bereziki halere, Kalezarko bizilagunei zuzendua doa.

Inguruotako jaietako egitarauan hutsik egiten ez duten aspaldiko ohiturek eta etxeko txikienek hartuko dute jaietako protagonismoa Kalezarren, lehen egunotan.

Larunbatean, ekainak 18, Oilasko Biltzaileen Eguna ospatuko da. Bat ez, bi talde irtengo dira gainera goizean goiz; helduak lehenik, gosaldu ostean 6:00etan. Eta 9:00etan, oilasko biltzaile txikiak. Auzoan ospatuko den bazkaritarako bilduko dira guztiak 14:00etan.

Igandean, krossa

Igandean berriz, Haurren Eguna ospatuko da. Goiza hasteko Haur Krossaren bederatzigarren edizioa burutuko da. Hortik aurrera, bazkalaurretik jolasak, eta bazkalostean, txokolate ederra dastatu eta buruhandien inguruan lasterka ibiltzeko aukera izango dute.

Goizean goiz irtengo dira eta eguerdirako plazan izango dira.

Sua piztu baino lehen, San Joan eskean ibiliko dira

Udako solstizioa, udari ongi etorria emateko gau magikoa, gurean bizirik jarraitzen duen usadio zaharra datorren ostegunean berpiztuko da. Ekainaren 23an, San Joan bezpera ospatuko da, eta eguna guztiz iluntzerako nonahi piztu eta ikusi ahal izango dira sutzarrak. Kalezarren, gaueko 22:00etan piztuko dute. Ohi denez, bertan bilduko diren herritarrekin batera izango dira, arratsaldeko 15:00etan eskean irtendakoak ere, aurreko urteetako tradizioari eutsiz gero, trikitilari eta bertsolariekin.

San Joan eguna

Eskeak gauean zehar jarraituko du eta modu horretan, San Joan egunean sartuko dira festak. Ostirala izan arren, jai egun nagusia izango da Kalezarren. Meza nagusiarekin abiatuko da goiza, eta afal ordura arte, San Joan egunez tradizio luzea duten beste zenbait ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da. Gorritiren show-a, eta toka txapelketa bazkal ordura arte.

Arratsaldean, soka dantza ikusi eta sabela pozteko hitzorduarekin borobilduko da San Joan eguna, sardinak janez, eta sagardoa edanez. Lagun giroan.

SUA PIZTU AURRETIK, SAN JOAN ESKEAN IBILIKO DIRA.

San Joanak ospatzeko, bi asteburu

Ekainak 17 ostirala

18:00etan: Buruhandiak.
19:00etan: Auzotarren arteko jokoak.
23:30ean: Ingo al deu? taldearekin dantzaldia.

Ekainak 18 larunbata

06:00etan: Gosaria eta oilasko biltzaileen irteera.
09:00etan: Oilasko biltzaile txikien irteera.
14:00etan: Oilasko biltzaileen bazkaria.
16:00etan: Musa (izen ematea 16:30ean itxiko da).
18:00etan: Herriko dantzariak.
00:00etan: Dj Van.

Ekainak 19 igandea, Umeen eguna

10:00etan: IX. Haur Krossa.
11:30ean: Jolasak.
16:30ean: Tailerrak.
18:00etan: Txokolatada.
Ondoren: Buruhandiak.
19:00etan: Dj Burundarekin dantzaldia.

Ekainak 23 osteguna, San Joan bezpera

15:00etan: San Joan eskearen irteera.
22:00etan: San Joan sua.
Ondoren: Eskearen jarraipena.

IAZ, SOKA DANTZAN PARTE HARTU ZUTEN EMAKUMEZKOAK.

Ekainak 24 ostirala, San Joan eguna

11:30: Meza nagusia.
Ondoren, toka.
13:00: "Gorritiren showa".
16:00: Buruhandiak.
19:00: Soka dantza. Ondoren: sardina eta sagardo dastaketa Saizar sagardotegiaren eskutik.

Ekainak 25 larunbata

16:00: Haurrentzat eta helduentzat jokoak (futbola, brileta…).
19:00: Tortila patata lehiaketa.
23:30: Desegin + Odolaren Mintzoa + Itzartu.

Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.

Jaiei agur esateko, herriko musika taldeak

Desegin, Odolaren Mintzoa eta Itzartu herriko musika taldeek agurtuko dituzte aurtengo Kalezarko San Joanak. Jaietako bigarren eta azken asteburuan izango da, hilaren 25ean, gaueko 23:30ean hasita.

Herriko musika taldeen lana ezagutzeko aukera egokia izango da beraz, Kalezarren.

Dj-ak eta plaza taldeak ere

Egitaraua hartuta, auzoko jaietako musika eskaintza bi Dj-ren emanaldiek osatuko dute: larunbat honetan, Dj Vanek girotuko du auzoko plaza ingurua, gauerditik aurrera eta igande arratsaldean, DjBurundaren txanda izango da.

Dantzaldia, 19:00etan hasiko da. Bestalde, San Joanetako lehen gaua, ostiral honetako dantza saioa, Ingo al deu? taldearen eskutik ospatuko da.

SAIOA

ile apainketa
betileen tintaketa

prezio bereziak jubilatuei!

Kalezar · 943 372 952

LP

LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.

INDUSTRIARAKO
PIEZA-MOLDAKUNTZA

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com

Josue
Igeltseritza S.L.

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

606 37 21 05

Ondo pasa
San joanetan!

Igeltseritza orokorra

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

AIALDE BERRI
SAGARDOTEGIA

AUKERA BERRIA UDAN!!!
ERRESERBEN BIDEZ...

943 36 50 31

OSTIRAL GAUETIK IGANDE EGUERDIRA

MAHAIAK KANPOAN
ETA BARRUAN

SAGARDOTEGIKO MENUA
ETA MENU GEHIAGO

AIALDE BERRI

Santuenea SAGARDOTEGIA

Sanjuanak Andoainen - ekainaren 23tik 27ra

23ko gauean, osteguna:
Bertso zakutoa, Oihan Vega

24ko gauean, ostirala:
Zain, Vendetta, Dolce Tangana, Pantxoa eta Peio

25eko gauean larunbata: Ingo al deu,
Esne Beltza, Gora Herria, Musika eskolako Banda

26ko gauean, igandea: Gozo Gozo

Larunbatean, Kirolaren Eguna

Kirol taldeak, kirol ekimenak, kirolariak… Ohiko zelai eta instalakuntzetatik atera, eta egun batez, lehen aldiz, guztiak batera kirola eginez ikusi ahal izango dira Kaxkoan. Jarduera desberdinetako neurketak ikusi eta kirol ariketak egiteko aukera ere izango da. Guztia eta gehiago, larunbatean, ekainaren 18an ospatuko den Kirolaren Egunean.

Kirol Patronatuak herriko kirol mugimendua biltzeko asmoz, hitzordua jarri du, larunbat honetarako. Goizetik hasi eta iluntzera arte ez dute etenik izango jai kutsuko ekimenek.

Hiru gune

Erreferentzialtasun handia duten hiru eskenatoki nagusitan garatuko da Kirol Patronatutik larunbaterako antolatu duten egitaraua: pilotalekuan, Mikel Laboa plazan eta Oiardo Kiroldegian. Frontoian, futbol edota eskubaloi neurketez gozatzeko aukera izango da. Oiardo Kiroldegian, hilabeteetako lanen ostean maiatzaz geroztik erabilgarri dauden instalakuntza berriak ezagutzeko ate irekien eguna antolatu dute. Azkenik, Mikel Laboa plazan erakustaldi, tailer eta kirol jarduerak praktikatzeko aukera izango da. Aerobik edota spinning egiteko gunean bihurtuko da frontoi atzea, nahi duten guztientzat. Hona hemen, gune bakoitzerako Kirol Patronatutik prestatu duten eskaintza:

Frontoian

10:00 Usurbil Cup.
12:00 Bi eskubaloi partida.
16:30 Emakumezkoen pilota partida palaz.

FRONTOIAN, MIKEL LABOA PLAZAN ETA KIROLDEGIAN EGINGO DIRA EKITALDIAK.

17:30 Bi eskubaloi txapelketa; batetik jubenil, senior eta senior beterano mailako neskak. Bestetik, 2. territorial, 2. nazional eta beterano mailako mutilak.
20:00 Usurbil FT-ko partida.

Mikel Laboa plazan

10:00 Orientazio proba herrikoia. Izen-ematea doan, 9:30ean.
11:15 Futbol trebeziaren txapelketa.
12:00 Gimnastika erakustaldia.
13:00 Gimnastikako tailerrak.
16:30 Aerobik saio irekia.
17:00 Spinning saio irekia.
18:00 Zintan, arraun ergometroan eta bizikletan markak haustea.
19:00 Imanol Agirretxe Realeko jokalariaren hitzalditxoa eta galderak egiteko aukera.
19:30 Herriko kirolaren alde egin dutenen errekonozimendua.

Oiardo kiroldegian

9:00-20:00 Ate irekiak.
10:00 Igeriketa proba irekia.
16:00 Piraguak igerilekuan.

Larunbatean ere, Usurbil FT-ren Eguna

Iaz bezala, aurten ere ikasturtea borobiltzeko ospakizun eguna antolatu du Usurbil FT-k, larunbat honetarako. Ekitaldietako batzuk, Kirolaren Egunaren barruko egitarauan ospatuko dira. Edozein kasutan, hauxe da antolatu duten ekintza eskaintza:

10:00-12:00 Usurbil Cup.
12:00-13:00 "A un toke" txapelketa irekia Mikel Laboa plazan.
16:00 Futbol Eskolako eta infantil mailako jokalarientzat ginkana herriko hiru guneetan.
20:00-21:00 Usurbil FT-ko beteranoen arteko neurketak.

Ondoren, jokalari, entrenatzaile eta zuzendaritza taldekoen afaria.

Usurbil Cup, azken txanpan

Usurbil FT-tik berri eman dutenez, Usurbil Cup txapelketa azken txanpan sartu da jada. Asteburu honetan, finalerdiak jokatuko dira. Eta ekainaren 25ean, final saio nagusiak.

Heldu eta haurrentzat kirol jarduerak Oiardon

Aurreko astekarian, Kirol Patronatuak 8-14 urte arteko gaztetxoei zuzenduta uda honetarako antolatu dituen ekintzen berri eman genuen. Helduentzat eta haurrentzat ere kirol jarduerak antolatu dituzte baita, uztailaren 4tik 29ra.

Ikastaro hauen prezioen eta bestelako informazio gehiagoren berri Oiardo Kiroldegian, 943 372 498 telefono zenbakian edo kirolpat@usurbil.net helbidean.

2016 urte arteko kultur arloko Plan Estrategikoa aurkeztu da

Usurbilek etorkizuneko kultur arloko norabidea finkatua du jada. Bi hilabeteko parte hartze prozesuaren ostean, ekainaren 8an aurkeztu zen sei bileretan herriko kultur eragileek burutu duten lanketa horren guztiaren emaitza; 2016 urtera arteko Kulturaren Plan Estrategikoa. Emaitzarekin gustura agertu ziren, ekitaldira gerturatu ziren udal ordezkari, zein elkarte eta taldeetako ordezkariak. Lanketa osoa txosten batean jaso da.

ARTZABALEN EGIN ZEN PLANAREN AURKEZPENA.

Martxoan hasi eta maiatzera arte iraun duen parte hartze prozesuaren emaitza da joan den astean Artzabalen aurkeztu zen; Usurbilgo Kulturaren Plan Estrategikoa. Parte hartze kontuetan aditua den Nicola Foroni gidari izan duen ekimenak hainbat datu esanguratsu utzi ditu; besteak beste, azken urteotan 30 taldetik gora aritu dira Usurbilen, kulturgintzan. Bertako kultur eskaintza, aurkezpen ekitaldian ondorioztatzen zutenez, "oparo eta koloretsua" da. Horren lekuko dira, herriko talde, elkarte eta Udala ordezkatuz, parte hartze prozesuan esku hartu duten 40 lagun inguru.

AHOLKU BATZORDEAN

Egungo egoera aztertu dute ahulezi, indar gune eta hobetu beharrekoak aintzakotzat hartuta

Azpimarratu nahi izan zuten beste alderdia, herriko kultur talde zein elkarteen eta Udalaren artean dagoen elkarlana da. Eta elkarlanaren aldeko apustua da hain zuzen, gaur egun guztiek duten biltokia; 1999an sortu eta gerora, 2008an berreskuratu zen Kultura Aholku Batzordea. Hain zuzen, bilgune horretan mahai gaineratu zuen Udalak kultur arloko parte hartze prozesua burutzeko beharra. "Erronka berriak ikusten ziren. Erronka berriei aurre egiteko aurkeztu zen parte hartze prozesua", adierazi zuen NOAUA! Kultur Elkarteko dinamizatzaile Alaitz Aizpuruak. Planteatutako apustu berri horien artean honakoak zeuden; kultur talde izatetik kultur herri izatera igarotzeko pausoa ematea, kultur ekintza bideratzeko modua edota Kultura Aholku Batzordetik estrategiak markatu beharra. Kultur ikuspegiaren sakoneko aldaketa proposatzen zen alegia. Udalak Batzordeari luzaturiko gonbita bilguneak onartu eta abian jarri zen duela hiru hilabete, alor honetako parte hartze prozesua.

Kultur ibilbidearen errepasoa

Denborak baldintzatu du parte hartze prozesuaren lanketa, azken mende erdiko herriko kultur ibilbideak hain zuzen. Prozesu barruan burutu diren sei bileretan, Usurbilgo kultur historia, egungo kultur bizimodua eta aurrera begirako lan ildoak zehaztu dituzte. Bilkuretan hiru denbora tarte nagusi bereizi dituzte eta modu horretan, azken bost hamarkadotan, kultur arloak Usurbilen eman duena errepasatu dute. Hala, aztertu zuten lehen denbora tartea, 1959tik 1996rakoa zen. Garai horretatik ekitaldiak antolatzeko modua nabarmendu zuten; eta orduko bereizgarriak dira, ekimenak bideratzeko "baliabide gutxi izatea, auzolana eta altruismoa", Teatreruak taldeko kide Leire Iturriozek aurkezpen saioan gogorarazi zuenez.

1996-2006 urte artea aztertu zuten gero, "hurbileko kultura eta kultura parte hartzailea" baloratzen den garaia. Taldeak desegin ziren garaia parte hartzaileen esanetan eta honenbestez, beherakada gisa definitu zituzten urteok. Eta azkenik, 2006tik gaur arteko azken bost urteok eman dutenari buruz, Usurbilgo kulturaren biziberritzea gertatu dela ondoriozta daiteke. Parte hartze prozesuko kideen esanetan, herriko taldeetan erreleboak egon dira, Kultura Aholku Batzordea berreskuratu da eta baliabideak ematen dituen neurrian, Udalaren egitekoak garrantzitsua izaten jarraitzen duela baloratu da.

Taldeen arteko harremanak indartzea falta da

Egungo egoerari buruzko azterketa ere egin dute, ahulezi, indar gune eta hobetu beharrekoak aintzakotzat hartuta. Aurkezpen ekitaldian aipatu zituzten ondorio nagusien artean, Usurbil kultur herri bizia dela diote, antolaketa lanetarako gogoa izan badela, eta mota askotako kultur ekintzak prestatzen direla. Aldiz, kultur taldeen arteko harremana indartzea falta da, hilero antolatzen diren kultur ekitaldi kopuruan desoreka dago, herritarrek kultur ekintzen berri jasotzeko zailtasunak dituzte edota kultur espazioak fisikoki bai, baina kulturalki ez direla ezagutzen azpimarratzen dute.

Bost urte, bost lan ildo

Etorkizunari begirako bost zutabe nagusiren inguruan bildu dituzte parte hartze prozesuko kideek, kultur arloko erronkak. Finean, sakoneko ikuspegi edo lanketa modu aldaketa bat proposatzen dute, gauzak egiteko beste modu bat, 2016ra arte finkatu dituzten ondoko lan ildoetan.

1- Kultura balioan jartzea: egungo gizartean beste alor batzuk garrantzi handiagoa dutenez, kulturari balioa ematea proposatzen dute helduen artean. Baita haurren artean ere, txikitatik alor honetara erakarriz eta haiengan kulturaren balioa sustatuz.

2- Herritarren artean parte hartzea sustatzea: herritarra kultur arloko aktibo bihurtzea, kultur sortzaile baina baita kontsumitzaile ere izatea. Eta euskaldun berri zein etorkinak ere hizkuntzan soilik ez, bertako kulturan ere integratu ahal izatea.

KOHESIOA BILATU

Taldeen arteko kohesioa bultzatzea izango da helburuetako bat datozen bost urterako

3- Auzoetako giroa bultzatzea: auzoetan antolatzen diren ekintzak bultzatzea, taldeak elkarren artean harremanetan jartzea eta ekimenak bideratzerakoan, guneon eta Kaxkoaren arteko oreka bilatzea.

4- Autogestioa bultzatzea kultur kudeaketan: herritik abiatuta, eta autogestioz egina. Udal baliabide eta tresnak eskuragarri jartzea eskatzea.

MAC JEARAS TALDEKOAK SUTEGIN IZAN DIRA AURTEN.

5- Kultur taldeak indartzea: taldeen arteko kohesioa bultzatzea. Ekitaldi gutxiago eta "hobeak" antolatzea, eta herritarrek taldeetan parte hartzeko aukera izatea.

Parte hartze prozesuarekin, gustura

Parte hartze prozesuko lanketa baloratzerakoan, baikortasuna nabari zen bertaratu zirenen adierazpenetan. Gustura agertu baitira buruturiko lanarekin eta aurrera begirako erronkei heltzeko gogotsu dira.

Parte hartze prozesuak herriko taldeak elkar ezagutu eta indartzeko balio izan duela adierazi zuen Jexux Artze Kultur Elkarteko kide Joxe Ramon Furundarenak. Elkarlana garrantzizkotzat jo zuen eta bide horretan, aipatu zuenez, "Potxoeneak harreman hori bultzatuko du". Antolatzeko gogoa eta ilusioa indartsu dagoela sumatzen du berak, eta dioenez, "halako prozesu batek indar gehixeago ematen du".

Euskara eta kultura alorreko udal teknikari Maite Iribarren esanetan, "hasierako aurreikuspenak oso ondo bete dira". Orain, 2016 urte arteko plangintza jasota, hurrengo pausoa betetzen joatea izango da, "Kultura Aholku Batzordean egiteko modu honi heltzea".

Parte hartze prozesuko gidari izan denak ere hitz batzuk egin zituen. Gustura aritu dela zioen Nicola Foronik, eta kultur eragileetako ordezkariei aurrera begirako erronka ere planteatu zien: "Lan oso polita dago hemen. Jendea asko mugitzen da. Lan ildo hauek baliagarriak izango dira, zuen lana indartzeko".

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
✆ 943 69 68 52 · 620 800 186

AITOR ALKORTA
Arotz lanak, era guztietakoak
Sukaldeak
Furgonetak norberaren gustora egokituak
Furgoneten homologazioa
629 789 288
alkortaitor@yahoo.es

Plis, Plas, Txalo ta Jolas, Kiki eta Koko pailazoekin

Kiki eta Koko pailazoek barrea eragingo diete ostegun honetan frontoira gerturatzen diren ikusle guztiei. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da "Irriparra barra barra" izeneko ikuskizuna.

Kiki eta Koko pailazoek alaitasunez bete nahi dituzte bazter guztiak. Bapatean, lamia azalduko da, uretako izpiritu purua, eta pailazoak ezinean dabiltzala ikusirik, ur-tanta garbiak eta puruak eskainiko dizkie lamiak.

Baina ez da ikuskizun honetako protagonista bakarra izango. Zuhaitz ihar bat ere aurkeztuko digute pailazoek. Ikusleen partaidetzarekin, gogoz lagunduko diote zuhaitzari indarberritzen.

FRONTOIAN ARITUKO DIRA ARRATSALDEKO 17:00ETAN.

NOAUA! Kultur Elkarteak urtero antolatzen du Plis, Plas, Txalo ta Jolas ekitaldia eta, aurten, Kiki eta Koko pailazoak izango dira gonbidatu bereziak. 17:00etatik aurrera frontoian, sarrera doan.

"Ispilua" antzezlana, ostiral gauez Zubietan

Bikoteak askotan larunbat gauean elkar ezagutzen dute, eta gizarteak bikotekidea ez uzteko presioa egiten du, harekin ezkondu, etxea erosi eta seme-alabak izateko. Bikoteen gaia modu zuzen eta kritiko batean jorratuko duen antzezlanarekin datoz Ion Martinez eta Saioa Royo aktoreak Zubietara. Ostiral honetan, ekainaren 17an, Martinezek berak sorturiko "Ispilua" antzezlana eskainiko dute Kaxkapen. Gaueko 22:00etan hasiko den emanaldi hau 16 urtetik gorakoei zuzendua dago. Ekitaldia, Zubieta Lantzen bilguneak antolatu du.

ARGAZKIAN, ANTZEZLANEKO BI PROTAGONISTAK.

San Joan sua eta Txokoak Aginagan

Ekainaren 23an iluntzeko 21:30ean San Joan sua egingo dute Sekaña ondoan. Honela egin dute deialdia:

Udararen atari
San Juan sua zaigu ageri
al dezutenak etorri
ta suta gauzak ekarri...

Beatziak ta erditarako
Sekaña etxe ingururako
suaren bultzadarako
gonbidatuak zaudetelako...

Txokoak ekaineko azken astean

Aginagako ludotekan, ekainaren 24tik 30era txokoak antolatu dituzte Antxomolantxa elkartetik: 10:00-13:30. Begirale bat egongo da bertan. Izena emateko 650 692 458 (Aingeru).

Udako Txokoak uztailean

4-12 arteko gazteentzat Udako Txokoak antolatu ditu uztailerako San Praixku guraso elkarteak. Goizez, 9:30-13:00. Izen ematea ekainaren 17ra arte. Informazioa: 608 264 043 (Maite) / 600 484 948 (Manuel).

Pilota Txapelketa, azken laurdenetan

Ekainak 18 larunbata Aginagan, 11:00etan

Jubenilak

Altuna-Tolosa / Labaka-Arratibel
(Amezketa) (Bidegoian)

Nagusiak

Oronoz-Gorriti / Errasti-Altuna
(Lesaka) (Usurbil)

Ekainak 19 igandea Usurbilen, 11:00etan

Jubenilak

Azketa-Atxa / Zestau-Mina
(Zegama) (Huarte)

Nagusiak

Alegria-Uharte / Zugadi-Ansotegi
(Iruñea) (Markina)

Pala Txapelketa, gizonezkoak

Ekainak 19 igandea Usurbilen, 17:30ean

Leko–Haritz Harreguy
Enrike Huizi–Xabier Murua

Josu Arruti–Jon Olaizola
Igor Alkorta–Eneko Arregi

Iban Arruti–Manuel Galarraga
Oidui Usabiaga–Mikel Ibarreta

Unai Loidi–Josu Errekondo
Imanol Esnaola–Haritz Zubiaur

Pala Txapelketa, emakumezkoak

Ekainak 16 osteguna Usurbilen, 19:30ean

Garazi Jauregi-Ainhoa Azpiroz
Nagore Leoz-Arantxa Unanue

Nerea Zinkunegi-Idoia Laguardia
Zaloa Leoz-Plas Lorenzo

Agenda

Ekainak 16 osteguna
- **Kiki eta Koko pailazoak,** 17:00etan Usurbilgo frontoian.

Ekainak 17 ostirala
- **"Hipo ta Tomax",** 17:30ean Santuenean. Ondoren, txokolate-jana.
- **"Ispilua",** Zubietan, Kaxkape lokalean gaueko 22:00etan.

Ekainak 18 larunbata
- **Kirolaren eguna,** egun osoz (ikus 17. orrialdea).

Goardiako farmaziak

Ekainak 16, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 17, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 18, larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 19, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 20, astelehena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Ekainak 21, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 22, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 23, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 24, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 25, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 26, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

Hipo Ta Tomax, ostiral honetan Santuenean

Frontoi eraiki eta ireki berria estreinatuko dute ostiral honetan, ekainak 17, Hipo Ta Tomax pailazoek. "Herri kirolak" ikuskizun berriarekin datoz, Santuenera.

Arratsaldeko 17:30ean hasiko da emanaldia. Ikuskizuna, herri kiroletako jaialdi atarian Hipotolomeo garbitzaileak eta Tomax aguazilak topo egiten dutenean abiatzen da. Kiroletako materiala prest dago, baina kirolariak falta direla ohartuta, proba hauetan onena nor den neurtzeko apustua egitea bururatzen zaie. Apustuan, umorea, xelebrekeriak eta saltsa tartekatuko dira, baita kantuak edota jolasak. Eta iragartzen dutenez, bertaratzen direnak ez dira ikus-entzule soilak izango. Haurrak ere herri kirolen jokoan parte hartzeko aukera izango dute, "ezer jokatu gabe, noski". Ikuskizunaren ostean, txokolate beroa dastatzeko aukera izango da.

Arratsalde pasa, Santuenea Kultur Elkarteak antolatu du.

FRONTOI BERRIAN ARITUKO DIRA ARRATSALDEKO 17:30EAN.

Zumarteren ikasturte amaierako kontzertuak

Matrikulazio epea itxi ostean eta udako oporraldiak hartu aurretik, ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte.

Ekainak 20, astelehena
19:00 Talde instrumentalen emanaldia Sutegin.

Ekainak 21, asteartea
18:30 Abesbatzen emanaldia San Esteban elizan.

Ekainak 22, asteazkena
18:30 Talde instrumentalen emanaldia Sutegin.

Ekainak 23, osteguna
18:00 Musika Txokoko ikasleen emanaldia Udarregi ikastolan.

Egun hauetan, bi erakusketa Sutegin

Ostegun honetatik igandera arte, Artzabal Zahar Egoitzako pintura ikasleen lanak ezagutzeko aukera izango da Sutegiko erakusketa aretoan. Ekainaren 19ra arte, ordutegi honetan: ostegun eta ostiralean, 17:00-20:00 artean; larunbatez, 10:00-13:00 artean eta 17:00-20:00 artean. Azkenik, igande goizean, 10:00-13:00 artean.

Ikasleen lanak ikusgai

Bestalde, Hasierako Lanbide Prestakuntza Programako ikasleek ikasturtean zehar eginiko lanak erakusgai jarriko dituzte, ekainaren 20tik 22ra. Hau ere Sutegin, ordutegi honetan: 11:30-13:30 artean.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 *20170*
Tlf 943 37 08 78 *USURBIL*

JATETXEA - TABERNA
BELARTZA
943 37 60 82
Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak
- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Umeentzat menu bereziak
- Ateeden egunak: larunbat gaua eta igandea
DECATHLONen ONDOAN
Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - A4 Pabilola • Donostia

Etxebizitza

- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilgo kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komona.Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat.Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 km-ra. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauez).
- Muna Lurra kalean etxe bat alokatzen da. Eguzkitsua eta berritua. 637225620.
-95metro etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

Salerosketak / garajeak

-Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
-50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

Lanpostuak

Lan-eskaerak

-Haur bat zaintzeko eta etxekolanak egiteko neska euskaldun baten bila gabiltza. 646130387.
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat . 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrak emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordutegi malgua (egunez zein gauez) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
-Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
-Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

Bestelakoak / Galdutakoak

- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Ume kapota batjaso zuen Udaltzaingoak Zubiaurrenea 2an (Otar Goxo parean). Galdu duenak Udaletxean jaso dezake.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserrirako. 666539284
- Masajeak ematen diut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabrian kanpin batean dagoen mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbiñe).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aulkia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburutegian, martxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxeetan, elkarte gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113

Zorionak Eneko!
Ekainaren 17an 5 urte betetzen dituzu moxolo. Zuk bai jakin noiz bete urteak, eh? Jaiekin batera! Ondo pasa eta muxu potoloak etxeko guztien partetik!

Zorionak Haritz!
Ekainaren 21ean 6 urte beteko dituzulako pozik egongo zara noski... Ea opari asko jasotzen dituzun. Ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik.

Oharrak, zorion agurrak, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan.
E-posta: erredakzioa@noaua.com
** Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu*

Ederty zaitez!

ekainak 18

kirol eguna

USURBIL

» Herriko pilotalekuan

10:00 **Usurbil Cup**

12:00 **Eskubaloi-partida**
Kadete mutilak *vs.* Guraso, entrenatzaile eta zuzendaritza *(20 min. 2 denbora)*

12:50 **Eskubaloi-partida**
Kadete neskak I *vs.* Kadete neskak II
Kaxkoa *vs.* Resto del Mundo *(20 min. 2 denbora)*

16:30 **Pala-partida.** Emakumezkoena

17:30 **Eskubaloi-partidak. Triangularra I:**
Jubenil neskak, Senior neskak, Senior beteranoak.
Partidu bakoitza 20 min. eta, batetik bestera 5 min.

18:45 **Eskubaloi-partidak. Triangularra II:**
2. territoriala, 2. nazionala, beteranoak.
Partidu bakoitza 20 min. eta, batetik bestera 5 min.

20:00 **Usurbil FTeko partida**

» Mikel Laboa plazan

10:30 **I. orientazio-proba.** Irekia

11:15 **Futbol trebezia.** Txapelketa

12:00 **Gimnastika.** Erakustaldia

13:00 **Gimnastikako tailerrak**

16:30 **Aerobik.** Saio irekia

17:00 **Spinning.** Saio irekia

18:00 **Markak haustea.** Zintan, arraun-ergometroan eta bizikletan

19:00 **Hitzaldia.** Errealeko Imanol Agirretxeren hitzaldia eta galderak egiteko aukera

19:30 **Errekonozimendua.** Herriko kirolaren alde egin dutenei

» Oiardo kiroldegian

–ate irekiak 9:00etatik 20:00etara–

10:00 **Igeriketa-proba irekia.**
Gazte eta helduentzako

16:00 **Piraguak igerilekuan.**

Usurbilgo Udala